

2022ko URRIAREN 20ko ERREKTOREAREN EBZPENAREN BIDEZ DEITUTAKO 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION KARRERADUN FUNTZIONARIOA IZATEKO SARRERA OROKORREKO OHIKO HAUTAKETA PROZESUA.

EPAIMAHAIAREN AKORDIOA. HAUTATUTAKO PERTSONEN ETA ESLEITU ZAIZKIEN LANPOSTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA EGITEN DENA.

DEILADI ESPEZIFIKOAK:

- **Gestioko teknikarien eskala - Gestio Orokorra (Ohiko prozesua)**
- **Gestioko teknikarien eskala - Kazetaritza (Ohiko prozesua)**
- **Unibertsitate Gestioaren eskala - Gestio Orokorra (Ohiko prozesua)**

2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen ebazpenaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-promoziokoak ere argitaratu ziren.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko ebazpen batzuen bidez, deialdi espezifikoetan karreradun funtzionario izendatzeko zenbait taldeetan hautaketa-prozedura arautu duten oinarri espezifikoak argitaratzeko agindu zen.

Karreradun funtzionario izateko ezohiko prozesuko epaimahaiak hartutako erabakiaren bidez, berariazko deialdietako behin betiko azken kalifikazioa onartu zen, eta zazpi egun balioduneko epea ezarri zen sailkapen-talde bakoitzerako hurrenez hurren eskaintako lanpostuak hautatzeko.

Deialdi espezifiko guztietan epe hori amaituta, eta 9.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, *hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen zerrenda egin behar da, kontuan hartuta hautagai bakoitzaren puntuazio hurrenkera eta adierazitako lehentasunak, betiere, lanpostuan aritzeko baldintzak betetzen badituzte, eta hamar egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaiek eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikoetarako.*

9.1 oinarri orokorrean ezarritakoa betetzeko, beharrezkotzat jotzen da hamar egun balioduneko epea ezartzea, erabaki hau argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, behin-behineko esleipendunek lanpostuaz jabetzeko asmoa adierazi beharko dute, enpleguaren atarian eskura jartzen zaien formularioa betez.

Deialdi espezifiko guztietan epe hori amaituta, eta 9.1, oinarri orokorrean bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrenda egin behar da.

Horregatik guztiagatik, epaimahai honek

ERABAKI DU

LEHENENGOA.– Karreradun funtzionario izateko sarrera orokorreko ohiko hautaketa-prozesuetako epigrafean aipatzen diren deialdi espezifiko bakoitzean, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda argitaratzea eta akordio hau argitaratzen egunetik hasita hamar baliodun eguneko

komun epea ezartzea erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaiek eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikotarako.

BIGARRENA.- Era berean hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrendan agertzen diren pertsonen eskura formulario bat jartzea lan -eskaintzen atarian, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun balioduneko epean lanpostuaz jabetzeko asmoa adieraz dezaten, hura beteta.

HIRUGARRENA.- Horretarako gaitutako UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (<https://www.ehu.eus/es/web/azp/barne-promozioa-22>); gaitutuen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

Epaimahaiko idazkaria